


Joxe Miel Iztueta
Lazkao Txiki (1926-1993
Lazkao, Gipuzkoa)

ISPILUA

Doinua: Komeni zaigun ixtoria bat A
Neurria: Zortziko handia (hg). Lau puntuko handia (ip)

1989an, Mutiloan (Gipuzkoan) Lazkao Txikiri ispilu bat eman zioten.

Hara zer elkarrizketa izan zuen ispiluz bestaldeko lagunarekin...

1 Oso ispilu eder, polit bat
didate aurrera **ekarri**
eman duenak jakingo zuen
mutilzahar* zahar honen **berri**
gazte dan arte hau izaten da
gazte guztien **pozgarri**
zahartutakuan ez da beidatzen*
gaztetan ohi bezain **sarri**.

2 Haizak, nik hiri bota behar dit
bertso koxkor* bat edo **bi**
behingoan jarri geranez gero
biok aurpegiz **aurpegi**
neri begira hortik daduzkat
alperrikako bi **begi**
hik ez nauk, noski, ni ikusiko
baina nik ikuste haut **hi**!

3 Neri begira jarrita, motel
zertako hago **honela**?
Ta pentsatzen dit aspalditxotik
ezagututzen **hautela**
mutilzaharraren moko horrekin
ez dek ematen **motela***
azal-zimurtzen ari haiz, motel
Lazkao Txiki **bezela**.

* ***mutilzahar*** = *donado, karlos*
beidatzen = *begiratzen*
koxkor = *puska*
motela = *gatzila*